

**2017ko ABENDUAREN 28an UDALBATZARRAK EGINDAKO OHIKO
OSOKO BILKURAREN AKTA** **13 zk.**

Zarauzko udaletxeko batzar-aretoan, 2017ko abenduaren 28an, iluntzeko zazpitan, Udalbatzarra bildu da, egun eta ordu horietarako aurretik deituta zegoen ohiko bilkura egiteko xedez.

Honako zinegotzi hauek bertaratu dira:

Batzarburua	Xabier Txurruka Fernandez jn.
Bertaratutako zinegotziak	Jesus Arana Gomez jn. Nekane Iribar Iriondo and. Ixidor Larrañaga Ayerbe jn. Iban San Martin Hernandez jn. Miren Letamendia Belloso and. Jon Andoni Urdangarin Urrutia jn. Iratxe Zorrozuza Eguiazabal and. Koldo Uribarri Zenekorta jn. Mikel Goenaga Gubia jn. Iñaki Eizagirre Eizagirre jn. Karmele Alberdi Linazasoro and. Aitor Korta Etxabe jn. Xabier Vazquez Izquierdo jn. Ane Arruti Lopetegi and. Gloria Vazquez Herranz and. Patxi Elola Azpeitia jn. Ana De Benito Sanz and. Oihane Delgado Pita and.
Ez dira etorri	Maite Garrastazu and. Naiara Carvajal Larrañaga and.
Idazkaria	Ines Diaz de Villafranca Arzamendi and.

Bilkurari hasiera emanda, eguneko aztergaiak aztertu eta eztabaidatu ditu Udalbatzarrak.

Osoko bilkura honetan egindako bozketa guztietan kontuan hartu da EH BILDU udal taldeko zinegotzi Naiara Carvajal Larrañaga andreak bere botoa eskuordetzan utzi ziola taldearen bozeramaile Mikel Goenaga jaunari; eta hori, apirilaren 7ko 2/2016 Legeak, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoak, 25.6 artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

GAI-ZERREDA

<http://bideoakta.zarautz.local/?pleno=20171228&punto=1>

1.- 2017ko AZAROAREN 30eko BILKURAREN AKTA ONARTZEA

Aho batez onartu dute, zuzenketarik gabe.

<http://bideoakta.zarautz.local/?pleno=20171228&punto=2>

2.- 2017ko ABENDUAREN 11ko BILKURAREN AKTA ONARTZEA

Aho batez onartu dute, zuzenketarik gabe.

<http://bideoakta.zarautz.local/?pleno=20171228&punto=3>

3.- ALKATETZAREN DEKRETUEN KONTROLA:

– 2017ko azaroaren 27tik abenduaren 21era

Segidan, Alkatetzak 2017ko azaroaren 27tik abenduaren 21era erabakitako dekretuen berri izan du Udalbatzak.

<http://bideoakta.zarautz.local/?pleno=20171228&punto=4>

4.- TOKIKO GOBERNU BATZARRAREN ERABAKIEN KONTROLA:

– 2017ko azaroaren 27tik abenduaren 18ra

Era berean, Tokiko Gobernu Batzarrak 2017ko azaroaren 27tik abenduaren 18ra hartutako erabakien berri izan du Udalbatzak.

<http://bideoakta.zarautz.local/?pleno=20171228&punto=5>

5.- ZARAUZKO UDALAREN ARAUGINTZA PLANA 2018. URTERAKO.

2017 I 133 0002 espedientea

39/2015 Legeak (urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena) 132 artikuluan ezartzen du Udalak urtez urte araugintza plan batean zehaztu beharko dituela hurrengo urtean onestekoak diren lege- edo erregelamendu-ekimenak.

Udal departamentuek egindako proposamenak oinarri hartuta, Zarauzko Udalak Araugintza Plana egin du 2018. urterako.

Hori guztia kontuan hartuta eta Antolakuntzako informazio-batzordeak aurrez irizpena eman ondoren, Udalbatzarrak, aho batez,

ERABAKI DU

Lehena.- 2018. URTERAKO ZARAUZKO UDALAREN ARAUGINTZA PLANA onartzea.

Bigarrena.- Onartutako ARAUGINTZA PLANA udal web-orrian argitaratzea.

2018. URTEKO ZARAUZKO UDALAREN ARAUGINTZA PLANA

39/2015 Legeak (urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena) honakoa dio, 132 artikuluan:

“Arau-plangintza.

1. Urtez urte, administrazio publikoek argitara emango dute araugintza-plan bat, eta hartan jasoko dira hurrengo urtean onesteko igorriko diren lege-edo erregelamendu-ekimenak.

2. Onetsitakoan, Urteko Araugintza Plana argitaratu egingo da, dagokion administrazio publikoaren gardentasun-atarian.”

Udal departamentuek egindako proposamenekin bat etorritz, Zarauzko Udaleko Araugintza Plan hau egin da 2018. urterako, honako edukiarekin:

A) ANTOLAKUNTZA ARLOA

A.1. DIRUZAINNTZA

A.1.1. ZERGA-BILKETAKO ORDENANTZA (berria)

Justifikazioa:

Zarauzko Udalaren egoera 38/2006 Foru Dekretura egokitzea (abuztuaren 2koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zerga-bilketa erregelamendua arautzen duena), eta jaso gabe dauden gaiak arautzea.

Gaur egun, hainbat dekretu eta dokumentu solte daude, eta horiek guztiak ordenantza bakar batean bateratu nahi ditugu.

Adibidez, zatikapenak, geroratzeak, ordainketak egiteko erak, zerga-bilketako lanen antolaketa, ordainketak esku-dirutan egin ahal izateko 2.500 euroko muga jartzea.

Ekimenaren helburu nagusia:

Lana erraztea, eta jarraitu beharreko prozedurak garbi izatea, zalantzak ekiditeko eta irizpide bateratuak izateko.

A.1.2. FONDOAK ERABILTZEKO PLANA (berria)

Justifikazioa:

Udalaren ordainketa-aginduak DIRUZAINTZAREN FONDOAK ERABILTZEKO PLANAREN arabera eman behar dira. Plan hori udalburuak ezarri behar du, eta, bertan, langileen gastuen eta aurreko ekitaldietan hartutako betebeharren lehentasuna bildu behar dira (21/2003 Foru Araua, 41. artikulua 7. atala).

Aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoaren 14. artikulua arabera, zor publikoaren ordainketak lehentasuna izango du.

Ordainketak planifikatzeko beharrezkoa da hainbat arau finkatzea. Horretarako, FONDOAK ERABILTZEKO PLANA onartu beharko du Udalak.

Ekimenaren helburu nagusia:

FONDOAK ERABILTZEKO PLANA onartzea.

A.2. KONTU-HARTZAILETA

A.2.1. ORDENANTZA FISKALAK (eranskinak aldatzea)

Justifikazioa:

Ordenantza fiskalak urtero berrikusten dira honako helburu hauekin:

- Ordenantzak egokitzea, maila goragoko xedapenen aldaketetara edo berrikuntzetara.
- Diru-sarreraren maila eguneratzea edo aldatzea.
- Zerga-onurak eguneratzea edo aldatzea.
- Prozedura administratiboak eta zerga-kudeaketa arrazionalizatzea.

Ekimenaren helburu nagusia:

Udalaren nahikotasun finantzarioaren printzipioa indartu eta mantentzea.

A.3 HERRITARREN ARRETA ZERBITZUA (HAZ)

A.3.1. ZARAUZKO UDALAREN HERRITARREN ARRETA ZERBITZUA ARAUTZEKO ORDENANTZA (aldatzea)

Justifikazioa:

Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen **urriaren 1eko 39/2015 Legea egokitzea.**

A.4. GIZA BALIABIDEAK

A.4.1. UDALTZAINGOAREN ERREGELAMENDUA (berria)

Justifikazioa:

58/2015 Dekretua, maiatzaren 5koa, Euskadiko udaltzaingoaren antolamenduari eta funtzionamenduari aplikagarri zaizkion esparru-arauak ezartzen dituena (EHAA 2015/05/11).

“LEHENENGO XEDAPEN IRAGANKORRA

1. *Esparru-arau hauek indarra hartu eta hiru urteko epean, udaltzaingoari buruzko araudia duten udalek esparru-arau hauek egokitu beharko dute araudi hori.*
2. *Esparru-arau hauek indarra hartzen dutenean udaltzaingoari buruzko araudi propiorik ez duten udalek ere hiru urteko epea izango dute beren araudia onartzeko.”*

Ekimenaren helburu nagusia:

Udaltzaingo Departamentuaren antolaketa eta funtzionamendua arautuko duen erregelamendua onartzea.

A.5. IDAZKARITZA. KONTRATAZIOA

A.5.1. ZARAUZKO UDALEKO KONTRATAZIO ADMINISTRATIBOEN PROZEDUREN UDAL ARAUTEGIA (berria)

Justifikazioa:

Udal arautegi horren bitartez, Zarauzko Udalak kontratazio administratiboen prozedura arautu nahi du; horrela beteko du datorren 2018ko martxoaren 9an indarrean sartuko den 9/2017 Legeak jasotakoa (azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuena), herri administrazioetako kontratazioan aplikatu daitezkeen arauak kontuan izanda.

Hala, lege berriak sartzen dituen berrikuntza batzuen barne-garapenari ekin nahi zaio, prozesuak arintzeko eta interesdunen bermerako eta besteak beste 39/2015 Legean jasotako administrazio elektronikoaren bideari ekiteko (urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena).

Aipatutako guztiak, bestalde, kontuan izan beharko du 2016ko irailaren 29an Udalbatzarrek egindako osoko bilkuran hartutako erabakia: hain zuzen ere, ZARAUZKO UDALEKO KONTRATAZIO MAHAI IRAUNKORRA eratzearena (2017ko irailaren 28ko osoko bilkuran, bileren maiztasuna aldatzea erabaki zuen Udalbatzak).

Ekimenaren helburu nagusia:

Zarauzko Udaleko kontratazio administratiboen prozedurak arautzea, indarrean dauden lege eta araudiak betez.

A.6. INFORMAZIO ETA KOMUNIKAZIO TEKNOLOGIAK

A.6.1. DATU PERTSONALAK DITUZTEN ESKUZKO FITXATEGIEN ETA FITXATEGI AUTOMATIZATUEN TRATAMENDUA EGITEKO BABES ETA SEGURTASUN POLITIKA (berria)

Justifikazioa:

Zarauzko Udalak datuen babeserako eta segurtasuneko politika onartuko du. Politika horren bidez, datu pertsonalak era seguru eta konfidentzian tratatuak izatea bermatuko zaie herritarrei, eta aukera emango zaie, baita, datuak eskuratzeko, datuak zuzentzeko, datuak ezerezteko eta datuen aurka egiteko eskubideak, Datuak Babesteko Lege Organikoan aitortutakoak, libreki erabiltzeko.

Politika horren onarpena bat etorriko da Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 2ko 40/2015 Legeak dioenarekin. Lege horrek dio herri administrazioek teknologikoki egokitu beharra daukatela egoera berriari aurre egiteko, eta aukera eman behar zaiela herritarrei, segurtasun eta konfidentziasun berme guztiakin, zerbitzu publikoetan telematikoki sartzeko.

Ekimenaren helburu nagusia:

Segurtasun politika bermatzea.

B) HERRITARREN ARLOA

B.1. GIZARTE ZERBITZUAK

B.1.1. ADINEKO PERTSONAK ZARAUZKO UDALEKO BABESPEKO APARTAMENTUETAN SARTZEKO PROZEDURA ETA BERTAKO FUNTZIONAMENDU ARAUTEGIA (aldatzea)

Justifikazioa:

Gizarte zerbitzuen zorroak, zerbitzu hau definitzeko orduan, sarbide baldintzetan esaten du 65 urtekoei eta 1 mendekotasun mailako pertsoneri zuzentzen zaiela.

Gaur egungo gure arautegiak, ordea, 60 urteko pertsoneri eta soilik autonomoak direnei zuzentzen die zerbitzua.

Bestalde, hainbat aldaketa bultzatu nahi dira, kuota jartzeko kalkulu ekonomikoa egiteko, senar-emazte edo bikoteen formula ezartzerakoan, eta ondare-mugak ere agian berrikusi nahi dira (elkarteren baten eskaera dago hori berrikusteko). Bestalde, prozedura ere berrikusi nahi da.

Ekimenaren helburu nagusia:

Araudi berrira egokitzea (gizarte zerbitzuen zorrora).

B.1.2. ZARAUZKO UDALEKO GIZARTE ZERBITZUEN SAILETIK DIRU-LAGUNTZAK EMATEKO OINARRI BEREZIAK (aldatzea)

Justifikazioa:

Arazoi nagusia da oinarri horiek Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015eko Legea egokitzea.

Horrekin batera, nazioarteko lankidetzaren alorreko hiztegia eta xedeak eguneratuko ditugu, nazioartean eta inguruko administrazioetan erabiltzen diren aldagaiak txertatzeko.

Ekimenaren helburu nagusia:

Gizarte Zerbitzuen Departamentuak ematen dituen diru-laguntzak egunean dagoen legedira egokitzea eta, urte hauetako eskarmentuan oinarrituta, diru-laguntza horien emakida eta kudeaketa hobetzea.

B.2. GAZTERIA

B.2.1. GAZTELEKUAREN FUNTZIONAMENDUKO BARNE ARAUDIA (aldatzea)

Justifikazioa:

Egungo zerbitzura eta erabiltzaile motara egokitze beharra.

Ekimenaren helburu nagusia:

Gaztelekuan bizikidetzako arau egokiak ezartzea.

B.3. KIROLA

B.3.1. KIROL INSTALAZIOEN ERABILERA ARAUDI OROKORRA (ALDATZEA)

Justifikazioa:

Zarauzko Udaltzaren 2017ko maiatzak 25ean egindako bilkuran onartutako EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO UDAL ORDENANTZARI egokitzapenak egitea (GAO 2017ko abuztuak 17), eta bertan gaur eguneko kirol errealitatearen alderdiak jasotzea.

Ekimenaren helburu nagusia:

Kirol politika eguneratzea.

B.4. KULTURA

B.4.1. BAI JENDAURREKO IKUSKIZUNAK, BAI JOLAS JARDUERAK ETA BAI –JENDAURREKO IKUSKIZUNAK, HERRIKO JAIK EDO BESTELAKO KULTUR EKITALDIAK DIRELA BIDE – INSTALAZIO EDO EGITURA BEHIN-BEHINEKOETAN, ERAMANGARRIETAN, EDO DESMUNTAGARRIETAN EGITEN DIREN SALMENTAK ARAUTZEKO ORDENANTZA (aldatzea)

Justifikazioa:

Urte hauetako eskarmentuan oinarrituta, bide eta gune publikoetan musika ekitaldiak eta formatu txikiko ikuskizunak egiteko baimenen emakida eta kudeaketa hobetzea.

Ekimenaren helburu nagusia:

Bide eta gune publikoetan musika ekitaldiak eta formatu txikiko ikuskizunak egiteko baimenen emakida eta kudeaketa hobetzea.

B.4.2. MODELO ARETOA ERABILTZEKO ARAUDIA (berria)

Justifikazioa:

Urte hauetako eskarmentuan oinarrituta, beharrezkoa ikusten dugu Modelo Aretoa erabiltzeko arauak zehaztea.

Ekimenaren helburu nagusia:

Modelo Aretoko erabiltzaileek jakin dezatela zeintzuk diren aretoa erabiltzeko baldintzak.

B.5. PAREKIDETASUNA

B.5.1. PAREKIDETASUN DEPARTAMENTUKO DIRU-LAGUNTZAK EMATEKO OINARRI BEREZIAK (aldatzea)

Justifikazioa:

Oinarri horiek 39/2015 Legea egokitzea (urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena).

2017. urteko deialdian detektatutako atal desegokiak zuzentzea eta kudeaketa hobetzea.

Aurreikusitako diru-kopuruaren banaketa egokiagoa izatea. Gehieneko diru-kopurua jartzea.

Euskarazko irizpideak txertatzea.

Ekimenaren helburu nagusia:

Parekidetasun Departamentuak ematen dituen diru-laguntzak indarrean dagoen legedira egokitzea eta, 2017. urteko eskarmentuan oinarrituta, diru-laguntza horien emakida eta kudeaketa hobetzea.

B.6. UDALTZAINGOA

B.6.1. MERKATAL ESTABLEZIMENDU IRAUNKOR BATETIK KANPOKO SALMENTAREN EGIKARITZA ERREGULATZEN DUEN ORDENANTZA (aldatzea edo berri bat egitea)

Justifikazioa:

Ordenantza berria sortu edo dagoena egokitu behar da hileko azokatik kanpo kalean egiten diren salmentak arautzeko.

Oraingo ordenantzak (1992koa) hileko azokaren ingurukoa bakarrik arautzen du.

Kale salmentak ordenantza berezi bat behar du.

Ekimenaren helburu nagusia:

Kalean egiten diren salmenta guztiak arautzea.

ZIGORTZEKO PROZEDURA LABURTUA erabiltzeko aukera ematea.

B.6.2. OINEZKOEN ETA IBILGAILUEN ZIRKULAZIOARI BURUZKO UDAL ORDENANTZA (aldatzea)

Justifikazioa:

Ordenantza eguneratu behar da, 6/2015 Legegintzako Errege Dekretura egokitzeke (Trafiko, Motordun Ibilgailuen Zirkulazio eta Bide Segurtasunari buruzko Legearen testu bategina onartzen duena).

Ekimenaren helburu nagusia:

Ordenantza eguneratzea eta akatsak zuzentzea.

B.6.3. ALKOHOLAREN PUBLIZITATEA, SALMENTA ETA KONTSUMOA ARAUTZEKO ORDENANTZA (aldatzea)

Justifikazioa:

Ordenantza eguneratu behar da, 1/2016ko Legea egokitzeko (Adikzioen eta Droga Mendekotasunen gaineko Arreta Integralari buruzkoa).

Ekimenaren helburu nagusia:

Ordenantza eguneratzea eta ZIGORTZEKO PROZEDURA LABURTUA erabiltzeko aukera ematea.

B.6.4. OSTALARITZA ETA ALKOHOLA SALTZEKO BAIMENA DUTEN MERKATARITZA ESTABLEZIMENDUAK IREKI ETA IXTEKO ORDUEI BURUZKO ORDENANTZA. 4/1995 LEGEARI EGOKITUA (aldatzea)

Justifikazioa:

Ordenantza eguneratu behar da. Abenduaren 23ko 10/2015 Legea egokituko da, indargabetutako 4/1995 Legea egokitu beharrean (azaroaren 10ekoa, Ikuskizun Publiko eta Jolas-Jardueri buruzkoa)

Ekimenaren helburu nagusia:

Ordenantza eguneratzea eta ZIGORTZEKO PROZEDURA LABURTUA erabiltzeko aukera ematea.

B.6.5. BAI JENDAURREKO IKUSKIZUNAK, BAI JOLAS JARDUERAK ETA BAI –JENDAURREKO IKUSKIZUNAK, HERRIKO JAIK EDO BESTELAKO KULTUR EKITALDIAK DIRELA BIDE – INSTALAZIO EDO EGITURA BEHIN-BEHINEKOETAN, ERAMANGARRIETAN, EDO DESMUNTAGARRIETAN EGITEN DIREN SALMENTAK ARAUTZEKO ORDENANTZA (Aldatzea)

Justifikazioa:

Ordenantza eguneratu behar da. Abenduaren 23ko 10/2015 Legea egokituko da, indargabetutako 4/1995 Legea egokitu beharrean (azaroaren 10ekoa, Ikuskizun Publiko eta Jolas-Jardueri buruzkoa).

Ekimenaren helburu nagusia:

Ordenantza eguneratzea eta ZIGORTZEKO PROZEDURA LABURTUA erabiltzeko aukera ematea.

C) LURRALDE ARLOA

C.1 HIRIGINTZA ETA INGURUMENA

C.1.1. OSTALARITZAKO ESTABLEZIMENDUAK ARAUTZEKO UDAL ORDENANTZA (aldatzea)

Justifikazioa:

Ordenantza hori 1985ekoa da.

Oso zaharkituta geratu da. Atal gehienak ez dira aplikatzen, ondoren onartu diren beste arau batzuk (Kode Teknikoa, Irisgarritasunari buruzko arauak...) edota hainbat udal ordenantzek (ZHAPO, zarata eta bibrazioei buruzkoa, gaueko ordutegian diharduten ostalaritzako jardueri buruzkoa...) indarrrik gabe utzi dituztelako.

Bi alternatiba aztertu dira:

- Ordenantza guztiz baliogabetzea.
- Ordenantza aldatu edo berrikustea, egun dauden atal batzuk mantenduz eta eguneratuz.

Hirigintza-diziplinako zinegotziak nahiago izan du bigarren alternatiba.

Ekimenaren helburu nagusia:

1985eko ordenantza berrikustea.

C.2. HERRILAN, AZPIEGITURA ETA ZERBITZUAK

C.2.1. AURRETIK UDAL LIZENTZIARIK EDUKI GABE HIRIGINTZA IZAERAKO EGINTZAK GAUZATZEKO EDO EGITEKO AHALMENA EMANGO DUTEN AURREKOMUNIKAZIOAK ARAUTZEKO UDAL ORDENANTZA (aldaketa)

Justifikazioa:

Ordenantzan sartzea, batetik, obrako elementu lagungarriekin bide publikoan egindako okupazioa eta, bestetik, jabari publikoan egiteko jarduerak, Zarauzko Udalaren alde zuzeneko lizentziarik behar ez dutenak.

Ekimenaren helburu nagusia:

Plan orokorreko aurreikuspenak garatuz eta indarrean dagoen legediaren testuinguruan sartuta, ordenantzaren helburua da aurrekomunikazioaren prozeduretan sar daitezkeen jabari pribatu edo publikoko hirigintza jardueren araubidea zabaltzea eta eguneratzea, bai eta alde zuzeneko udal lizentziarik behar ez duten jardueretan aritzeko edo instalazio jakin batzuk martxan jartzeko hasiera arautzea ere.

Obrako instalazio lagungarrien tramitazioa eta jabari publikoari eragiten dioten jardueren tramitazioa arintzea.

C.2.2. BIDE PUBLIKOAN ALDAMIOAK, GARABIAK NAHIZ OBRAK EGITEKO BESTE EDOZEIN LAGUNGARRI JARTZEKO UDAL ORDENANTZA (aldaketa)

Justifikazioa:

Bide publikoa obrako elementu lagungarriekin okupatzeko indarreko ordenantzaren araubidea berrikusi eta eguneratzea, udal eskumenetara mugatuta, eta instalazioetan derrigorrez bete beharreko segurtasun-araudiak ez pilatzea, instalazio horiek eragin ditzaketen pertsonen eta ondasunen segurtasuna bermatzeko araudiak jasota baitaude estatu edo erkidego mailako araudietan. Era berean, baldintza batzuk jartzea udal bide eta espazio publikoetako hegal, zoru eta lurpean egiten diren zerbitzuen obretan eta instalazioetan betetzeko.

Jardueren aurrekomunikazioaren kontzeptua honako hauetara ere zabaltzea: jabari publikoaren okupazioa eskatzen duten obrako instalazio lagungarriak, zangak, harguneak, mantentze-lanak eta sare-banaketak.

Ekimenaren helburu nagusia:

- Baldintza batzuk jartzea a) udal bide eta espazio publikoetako hegal, zoru eta lurpean egiten diren jardueretan eta zerbitzuen instalazioetan betetzeko, eta b) Zarauzko udal mugapeko bide publikoa obrako edozein elementu edo bitarteko lagungarriekin okupatzeko. Horien helburua da oinezkoen segurtasuna, hiri-mugikortasuna eta ibilgailuen trafikoa bermatzea eta bide publikoak eta hiri-altzariak hobeto zaintzea.
- Bide publikoari eragiten dioten obrako instalazio lagungarrien eta jardueren tramitazioa arintzea.
- Instalazioetan derrigorrez bete beharreko segurtasun-araudiak ez pilatzea, instalazio horiek eragin ditzaketen pertsonen eta ondasunen segurtasuna bermatzeko araudiak jasota baitaude estatu edo erkidego mailako araudietan.
- Kontuan hartzea herritarren eta Administrazioaren arteko harremanak errazteko Europako Parlamentuak eta Kontseiluak onartutako 2006/123/EE Zuzentaraua indarrean sartu denetik sortu den esparru juridiko berria. Berrienen artean dago 2/2011 Legea, martxoaren 4koa, ekonomia iraunkorarena. Horrek aldaketa bat sartu zuen apirilaren 2ko 7/1985 Legean (toki araubidearen oinarriak arautzen dituenak), esaten baitu jarduera bat egiteko ez bada behar hura baimentzeko alde zuzeneko lizentziarik, udal entitateek behar diren komunikazio-prozedurak jarri eta planifikatuko dituztela. Jabari publikoaren okupazioa behar duten jardueretara ere zabaltzea aurrekomunikazioaren kontzeptua. Tramitazio hori kendu egin da ordenantza honetatik, beraz, Alde Zuzeneko Komunikazioak arautuko dituen udal ordenantzako xedapen bereziek arautuko dute.
- Obrako instalazio lagungarrien baimen-araubidea arrazionalizatzea herritarren ohiko erabilera orokorrarekin. Herritarren segurtasunak lehentasun osoa izango du, eta interes publikoak eta pribatuak bateragarri egingo dira. Eta hori guztia, udal jabari publikoaren okupazioaren esparru juridikoa hobetzeko eta, azken finean, udal kudeaketa eraginkorragoa lortzeko eta herritarrei zerbitzu hobea emateko.

C.2.3. BIDE PUBLIKOA TERRAZA ETA MAHAIEKIN OKUPATU ETA ERABILTZeko UDAL ORDENANTZA (aldaketa)

Justifikazioa:

Merkataritzako establezimenduek bide publikoan egiten duten okupazioa arautzea, eta ostalaritzako establezimenduek bide publikoan egiten duten okupazioaren egungo araudia berrikustea.

Ekimenaren helburu nagusia:

- Merkataritzako eta ostalaritzako establezimenduek bide publikoan egiten duten okupazioa arautzea; berdin-berdin zaintzea irisgarritasuna eta espazio publikoko paisajearen balioa; eta erabilitako espazio publikoaren berezko

erabilera bermatzea, kalitatezko ostalaritza eta merkataritza zerbitzuen harmonizazioan, antolaketan eta bultzadan oinarritutako irizpide argiekin.

- Espazio publikoan jar daitezkeen elementuak zehaztea, erabiltzaileen eta bizilagunen bizikidetzeta hobetzeko.
- Establezimenduei irtenbideak ematea, oinezkoen ibilbideak errespetatzeko.

<http://bideoakta.zarautz.local/?pleno=20171228&punto=6>

6.- ZARAUZKO KALE GARBIKETA ETA HIRI HONDAKIN SOLIDOEN BILKETA ZERBITZUA KUDEATZEKO PREZIOAK BERRIKUSTEA

2009 I 120 0001 espedientea

2009ko uztailaren 29an egindako osoko bilkuran, Udalbatzarrak erabaki zuen UTE FCC-SERBITZU enpresari ematea, behin behineko izaeraz, ZARAUZKO UDAL MUGAPEAN HIRI-HONDAKINAK ETA ASIMILAGARRIAK BILDU ETA GARRAIATU, KALEAK GARBITU ETA ANTZEKOAK EGITEKO ZERBITZU PUBLIKOA kudeatzeko kontzesioa, urteko 1.449.948,47 euroko prezioan (BEZ barne). Kontratua 2009ko irailaren 17an sinatu zen.

Alkatetzaren 2010eko urtarrilaren 28ko 0109/2010 Dekreturen bitartez, Udala enpresaren izen aldaketaz jabetu zen; ordutik aurrera izena ZARAUZKO GARBIKETA UTE da.

Herrilan, Azpiegitura eta Zerbitzuetako Departamentuak txostena egin du (1026/2017 zk., 2017ko azaroaren 10koa) prezioen berriskupenari buruz.

Herrilan, Azpiegitura eta Zerbitzuetako Departamentuaren txostena ikusita, eta Lurraldeko informazio-batzordeak hala proposatuta, Udalbatzarrak, aho batez,

ERABAKI DU

Lehen.- ZARAUZKO UDAL MUGAPEAN HIRI-HONDAKINAK ETA ASIMILAGARRIAK BILDU ETA GARRAIATU, KALEAK GARBITU ETA ANTZEKOAK EGITEKO ZERBITZU PUBLIKOA kudeatzeko ZARAUZKO GARBIKETA UTE enpresarekin sinatutako kontratuaren prezioak berrikustea, ondoren zehazten den moduan (BEZ barne):

2017-2018 urtea (2017/09/17tik 2018/09/16ra)

ZERBITZUA	Aurreko errebisio ondoren gauzatzeko materiala	Errebisioa 2016ko KPIaren %85 (1,6%) = 1,36%	Kontratak gauzatzeko 2017 (GO+IO) = 10%	Inbertsioak	Zerbitzu ustiapena	Bez % 1	GUZTIRA (bez barne)
Hiri-hondakinen bilketa	374.684,81 €	379.780,52 €	417.758,57 €	23.743,39 €	441.501,96 €	44.150,20 €	485.652,16 €
Poligonoetako Bilketa	108.886,11 €	110.366,96 €	121.403,65 €	12.648,98 €	134.052,63 €	13.405,26 €	147.457,90 €
Kale garbiketa	724.797,92 €	734.655,17 €	808.120,69 €	72.241,84 €	880.362,53 €	88.036,25 €	968.398,78 €

GUZTIRA	1.208.368,83 €	1.224.802,65 €	1.347.282,91 €	108.634,21 €	1.455.917,12 €	145.591,71 €	1.601.508,84 €
----------------	----------------	----------------	----------------	--------------	----------------	--------------	-----------------------

Bigarrena.- Berrikusitako prezioak (BEZ barne) honako hauek dira:

- Kale garbiketa:	968.398,78 €
- Hiri-hondakin solidoen bilketa	485.652,16 €
- Hiri-hondakin solidoen bilketa industrialdeetan:	147.457,90 €
Guztira	1.601.508,84 €

<http://bideoakta.zarautz.local/?pleno=20171228&punto=7>

7.- ZARAUZKO KALE GARBIKETA ETA HIRI HONDAKIN SOLIDOEN BILKETA ZERBITZUA KUDEATZEKO KONTRATUA ALDATZEA

2009 I 120 0001 espedientea

Akordio-zirriborroa irakurri ostean, proposamena eztabaidatu eta bozkatu dute. Bozketak emaitza hau izan du:

Aldeko botoak:	13	(9 EAJ-PNV, 2 PSE-EE, 2 Irabazi Zarautz)
Kontrako botoak:	—	(
Abstentzioak:	7	(7 EH Bildu)

Ondorioz, adierazitako gehiengoarekin, Udalbatzarrak erabaki hau hartu du:

“2009ko uztailaren 29an egindako osoko bilkuran, Udalbatzarrak erabaki zuen UTE FCC-SERBITZU enpresari ematea, behin behineko izaeraz, ZARAUZKO UDAL MUGAPEAN HIRI-HONDAKINAK ETA ASIMILAGARRIAK BILDU ETA GARRAIATU, KALEAK GARBITU ETA ANTZEKOAK EGITEKO ZERBITZU PUBLIKOA kudeatzeko kontzesioa, urteko 1.449.948,47 euroko prezioan (BEZ barne). Kontratua 2009ko irailaren 17an sinatu zen.

Alkatetzaren 2010eko urtarrilaren 28ko 0109/2010 Dekreturen bitartez, Udala enpresaren izen aldaketaz jabetu zen; ordutik aurrera izena ZARAUZKO GARBIKETA UTE da.

Azkenik, 2017ko maiatzaren 25ean egindako osoko bilkuran, Udalbatzarrak onartu zuen, Urola Kostako Udal Elkarteko Batzar Nagusiak hala proposatuta, Estatutu arautzaileen 5. artikulua aldaketa. Horren ondorioz, Udal Elkarteak zerbitzu hau bideratu eta eskainiko du: “*Etxeetan sortutako etxeko hondakinak eta merkataritza eta zerbitzuetan eta industrian sortzen diren etxeko hondakinen antzekoak bildu eta garraiatzea*”. Zerbitzu hori 2018ko urtarrilaren 22tik aurrera jarriko da martxan.

Aurreko akordio hori gauzatzeko, Udalak ZARAUZKO GARBIKETA UTE enpresarekin duen kontratua aldatu eta egoera berrira egokitu behar du.

ZARAUZKO GARBİKETA UTE enpresarekin egindako negoziazioen ondoren, Herrilan, Azpiegitura eta Zerbitzuetako Departamentuak txostena egin du (1084/2017 zk., 2017ko abenduaren 11koa). Bertan, kontratua egokitu eta aldatzeko arrazoiak eta zehaztasunak ematen ditu.

Herrilan, Azpiegitura eta Zerbitzuetako Departamentuaren txostena ikusita, eta Lurraldeko informazio-batzordeak hala proposatuta, Udalbatzarrak, botoen gehiengoarekin,

ERABAKI DU

Lehen.- ZARAUZKO GARBİKETA UTE enpresak Zarauzko Udalari eskaintzen dion zerbitzuaren kontratua aldatzea, modu honetan:

ZERBITZUA	KONTRATUA GAUZATZEA 2017 (GO+IO)	INBERTSIOA	ZERBITZU USTIAPENA	BEZ (% 10)	GUZTIRA (BEZ barne)
Kale garbiketa	731.540,37 €	67.729,94 €	799.270,31 €	79.927,03 €	879.197,34 €
Malekoiko gaikako bilketa	36.526,94 €	0,00 €	36.526,94 €	3.652,69 €	40.179,64 €
Zerbitzu orokorrak	158.116,63 €	7.519,83 €	165.636,46 €	16.563,65 €	182.200,11 €
7. garbiketa zona	28.500,31 €	0,00 €	28.500,31 €	2.850,03 €	31.350,34 €
Garbiketa ur-makina bidez	16.655,67 €	0,00 €	16.655,67 €	1.665,57 €	18.321,24 €
GUZTIRA	863.476,14 €	75.249,77 €	992.905,28 €	99.290,52 €	1.151.248,67 €

Bigarren.- Kontratuaren iraupena urtebete gehiago luzatzea. Ondorioz, kontratuaren amaiera epea 2020ko irailaren 16a izango da.

Hirugarrena.- Etxeetan sortutako etxeko hondakinak eta merkataritza eta zerbitzuetan eta industrian sortzen diren etxeko hondakinen antzekoak bildu eta garraiatzeko erabili ohi diren materialak eta elementuak amortizatzea, eta amortizazio horrengatik ZARAUZKO GARBİKETA UTE enpresari 58.729,85 euro (BEZ barne) ordaintzea.”

<http://bideoakta.zarautz.local/?pleno=20171228&punto=8>

8.- HONDAKINEN BILKETA ETA GARRAIO ZERBITZUA. UROLA KOSTAKO UDAL ELKARTEARI EMANDAKO ESKUMENA MUGATZEA

2017 Z 133 0001 espedientea

I. Urola Kostako Udal Elkarteko Batzar Nagusiak, 2016ko abenduaren 15ean egindako ohiko osoko bilkuran hasierako onarpena eman zion Urola Kostako Udal Elkartearen Estatutuen aldaketari. Horren ondotik, espedientea jendaurrean erakusgai jarri zen, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratutako iragarkiaren bidez (GAO 2016-12-29, 246. zk.). Jendaurrean erakusgai jartzeko arauzko epean ez zen erreklamaziorik izan. Jarraian, batetik, estatutuen aldaketaren espedienteak Foru

Aldundiaren aldeko txostena jaso zuen eta, bestetik, Udal Elkarteak osatzen duten udalen gehiengoak onartu du. Udal honek 2017ko maiatzen 25ean osoko bilkuran onartu zuen hizpide dugun estatutu-aldaketa, araubideak ezartzen duen eran, osoko bilkurako legezko kideen gehiengo osoaren aldeko botoarekin.

Estatutuen aldaketaren helburua da 5. artikulua aldatzea, Estatutuek bere xedearen barruan aurreikusteko, hondakinen gaikako bilketaz gain, etxeko hondakin guztien bilketa, errefusa barne.

Estatutuak aldatzeko espedienteak amaitu ondoren, Urola Kostako Udal Elkartearen Estatutuak argitaratu egin ziren, osorik, eta argitaratzearekin batera indarrean jarri ziren (Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala, 2017ko azaroaren 13koa, 216. zenbakia).

Hona hemen aldaketa-espedienteak hizpide duen 5. artikulua, aldatu aurretik eta ondoren:

5. artikulua

5. artikulua: Udal Elkartearen helburuak

Urola Kostako Udal Elkartearen helburu nagusia Udal Elkarteak osatzen duten udalerrien garapena eta udalerririk horietako biztanleen ongizatea lortzea da. Horretarako, Udal Elkarteak udalen eskumenekoak diren eta ondoren adierazten diren zerbitzu eta programak bideratu eta eskainiko ditu (era esklusiboan nahiz osagarrian):

Prestakuntza eta enplegu programak: prestakuntza eta laneratzeko.

Baztertuta gelditzeko arriskuan dauden pertsonak gizarteratzeko eta laneratzeko programak.

Enpresak sustatzeko eta enpresei laguntzeko zerbitzuak.

Hiri hondakinak gaika bildu eta garraiatzeko zerbitzuak eta Garbiguneen kudeaketa.

Hondakinak tratatu eta desagerrarazteko zerbitzuak.

Ingurumeneko informazio eta sentiberatze kanpainak.

Eskualdean euskararen erabilera sustatzeko ekimenak.

Eskualdeko turismoa sustatzeko ekimenak.

Horiekin batera, Udal Elkarteak udalen eskumenekoa den edozein zerbitzu eskaini ahal izango, artikulua honetan berariaz adierazi ez arren. Udal Elkartearen helburuak zabaltzeko Estatutuak aldatzea eskatuko du, 27. artikuluan ezarritako prozedurari jarraituz.

5. artikulua, aldatuta

5. artikulua: Udal Elkartearen helburuak

Urola Kostako Udal Elkartearen helburu nagusia Udal Elkarteak osatzen duten udalerrien garapena eta udalerririk horietako biztanleen ongizatea lortzea da. Horretarako, Udal Elkarteak udalen eskumenekoak diren eta ondoren adierazten diren zerbitzu eta programak bideratu eta eskainiko ditu (era esklusiboan nahiz osagarrian):

Prestakuntza eta enplegu programak: prestakuntza eta laneratzeko.

Baztertuta gelditzeko arriskuan dauden pertsonak gizarteratzeko eta laneratzeko programak.

Enpresak sustatzeko eta enpresei laguntzeko zerbitzuak.

Etxetan, saltokietan, zerbitzuetan eta industrietan sortzen diren etxeko hondakinak bildu eta garraiatzeko zerbitzuak.

Hondakinak tratatu eta desagerrarazteko zerbitzuak.

Ingurumeneko informazio eta sentiberatze kanpainak.

Eskualdean euskararen erabilera sustatzeko ekimenak.
Eskualdeko turismoa sustatzeko ekimenak.

Horiekin batera, Udal Elkarteak udalen eskumenekoa den edozein zerbitzu eskaini ahal izango, artikulua honetan berariaz adierazi ez arren. Udal Elkartearen helburuak zabaltzeak Estatutuak aldatzea eskatuko du, 27. artikuluan ezarritako prozedurari jarraituz.

Horrenbestez, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 10.3, 19.2 eta 102. artikuluetan eta horiekin bat datozen artikuluetan aurreikusitakoak kontuan hartuta, udal honek erabaki du, Urola Kostako Udal Elkartearen osatzen duten beste udalekin batera, ondoko arlo honetako eskumena gauzatzea era mankomunatuan, Urola Kostako Udal Elkartearen bidez: *etxebizitzetan, saltokietan, zerbitzuetan eta industrietan sortzen diren etxeko hondakinak bildu eta garraiatzeko zerbitzu publikoa.*

II. Mankomunitateak arautzen dituen araubidearen (6/2007 Foru Araua, apirilaren 10ekoa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko udalez gaindiko erakundeak arautzen dituen) eta Urola Kostako Udal Elkartearen arautzen duten Estatutuen arabera, Urola Kostako Udal Elkartearen eskudantziak dira, besteak beste eta bere helburuak betetzeko beharrezko diren heinean, erregelamenduak garatzeko ahala eta zerga eta finantza arloko ahala.

Hortaz, Udal Elkartearen eskudantzia dira zerbitzuak arautzeko ordenantzak onartzea eta bere eskumenen esparruan eskaintzen dituen zerbitzuak finantzatzeko zerga arloko baliabide propioak zehaztea, araubideak aurreikusten duenaren argitara. Alabaina, hondakinak biltzeko zerbitzuari dagokionez, gaur arte Udal Elkarteak ez du administrazio-ahal hori erabili.

Ondorioz, hori guztia kontuan hartuta, Udal Elkarteak administrazio-ahal hori erabili eta emandako eskumena gauza dezan, udalak berariaz akordioa onartu behar du, Udal Elkarteari hondakinak bildu eta garraiatzeko zerbitzua eskaintzeko ematen zaizkion eskudantziak zehazteko.

Horrenbestez, aurreko ataletan adierazitakoaren argitara, Antolakuntzako informazio-batzordearen aldeko irizpena jaso ondoren, Udalbatzarrak, aho batez,

ERABAKI DU

Urola Kostako Udal Elkarteari etxebizitzetan, komertzioetan, ostalaritzan eta industrian sortutako etxeko hondakinak bildu eta garraiatzeko zerbitzua osorik kudeatzeko transferitutako eskumenaren esparrua mugatzea, akordio honetan ezartzen diren zehaztasunen argitara.

Lehena.- Zerbitzuak arautzen dituzten ordenantzak eta erregelamenduak onartzea, aldatzea eta indargabetzea. Zerbitzuen kontratazioa eta horien aldaketa, likidazioa eta ebazpena.

Urola Kostako Udal Elkarteak arautuko du etxebizitzetan, saltokietan, zerbitzuetan eta industrietan sortzen diren etxeko hondakinak bildu eta garraiatzeko zerbitzu

publikoa, Udal Elkartearen osatzen duten udalen lurralde eremuan, ondoko araubide honekin bat etorritik: 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen; 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa; eta 22/2011 Legea, ekainaren 28koa, hondakinei eta lur kutsatuei buruzkoa.

Zerbitzu hori arautzeko ordenantza bat onartuko da, helburu hauekin: hondakinak biltzeko zerbitzuak definitzea eta Udal Elkartearen eta zerbitzuaren erabiltzaileen arteko harremana arautzea, bestela esan, bi aldeek eskubide eta betebeharrak arautzea. Halaber, aurreikusiko du, atal bereizi gisa, zehapenen araubidea. Atal horrek tipifikatuko ditu 22/2011 Legeak aurreikusten dituen arau-hauste eta zehapenak eta ezarriko du berariaz zehapen-ahalmena izango dela udalena, udalek baitituzte, batetik, legeaz aitortutako aginte eta agenteak, arau-hauste administratibotzat har daitezkeen gertakariak eta horien erantzule izan daitezkeen pertsonen nortasuna zehazteko ikuskapenak egin edo akta edo atestatuak egiteko eta, bestetik, behar diren administrazio-sailak, zehapen-ebazpena hartu aurretik bideratu beharreko zehapen-prozedurak izapidetzeko. Horri dagokionez, Udal Elkartearen kale hezitzaileek udalei bideratuko dizkiete salaketak.

Urola Kostako Udal Elkarteak kudeatuko du Udal Elkartearen eremuko udalerrietako etxebizitzetan, komertzioetan, ostalaritzan, zerbitzuetan eta industrietan sortzen diren etxeko hondakinak bildu eta garraiatzeko zerbitzu publikoaren kontratazioa nahiz kontratuak aldatu, likidatu eta amaitzea.

Bigarrena.- Ordenantza fiskalak onartu, aldatu eta indargabetzea: zergak bildu eta kudeatzea.

Urola Kostako Udal Elkarteak onartu, kudeatu eta bilduko du Udal Elkartearen osatzen duten udalen lurralde eremuko hondakinak bildu eta tratatzeko zerbitzuaren tasa. Horretarako, batetik, tasa hori arautzen duen ordenantza fiskala onartuko du eta, bestetik, tasa hori kudeatu eta biltzeko (borondatezko epean eta behartze bidean) behar diren hitzarmenak egingo ditu, tasaren sistemaren eraginkortasuna eta ekonomia ziurtatzeko helburuz.

Hirugarrena.- Datu pertsonalen fitxategiak, sortu, aldatu eta ezeztatzea.

Urola kostako Udal Elkarteari transferitzen zaio hondakinen erroldako erabiltzaileen fitxategiaren titulartasuna. Udalek sarbidea izango dute fitxategi horietako zerga-datueta, 15/1999 Lege Organikoaren (abenduaren 13koa, datu pertsonalak babesteari buruzkoa) 21. artikulua eta 2/2005 Foru Arauaren (martxoaren 8koa, Gipuzkoako Zergen Foru Arau Orokorra) 92.1 b) artikulua argitaratu. Sarbidea izatea beharrezkoa da fitxategia eguneratzeko lanak (altak, bajak eta aldaketak) udalek eta Udal Elkarteak egin ahal izateko eta, horren bidez, herritarrei beren zerga datuetan aldaketak egiteko aukera bertatik bertara eskaini ahal izateko. Horrez gain, udalek datuetara sarbidea izatea beharrezkoa da udal zergen betebeharrak betetzeari buruzko ziurtagiriak egin ahal izateko.

Laugarrena.- Indarrik gabe uztea 2017.12.31tik aurrera, udal honek Gipuzkoako Ur Kontsultazioarekin sinatutako hitzarmenaren zabor tasaren kobrantzari dakion atala.

<http://bideoakta.zarautz.local/?pleno=20171228&punto=9>

9.- PSE-EE UDAL TALDEAK AURKEZTUTAKO PROPOSAMENA:

– Ekhine Eizagirri egindako omenaldi publikoa salatzeko mozioa

2017 O 001 0033 espedientea

EH BILDU udal taldeko bozeramaileak eskatuta, batzarburu jaunak bilkura eten egin du, gaueko zortziak hamar gutxi direnean, udal taldeek azter dezaten PSE-EE taldeak aurkeztutako mozioaren testu berria. Handik hamabost minutura, zortziak eta bostean, berriro ekin diote osoko bilkurari.

Segidan, PSE-EE udal taldeak aurkeztutako proposamen aldatua irakurri dute. Honela dio:

Ekhine Eizagirri egindako harrera salatzeko mozioa

Joan den azaroaren 10ean Memoriaren Eguna izan zen, eta bortizkeriarekin euskal gizarteak zenbat sufritu duten gogoratu genuen Zarautzen, eta bereziki, bortizkeria horren biktimak ekarri genituen gogora. Zehatzago esanda, Zarautzen ETAk 13 pertsona hil zituen guztira eta ehunka zauritu, mehatxuak eta hertsapenak ahaztu gabe.

Bizikidetzarako ezinbestekoa da terrorismoari legitimitatea kentzea. Terrorismoaren biktimei zor zaien egia, ordainaren eta justiziaren zati garrantzitsua da hori.

Hala ere, azaroaren 14an herri osoa kartekez josia aurkitu genuen etakide bati ongietorria ematen.

Autopistako eta su-hiltzaileetako errotondan, trenbidearen azpiko pasabidean, udaletxeko plazan eta Arrano elkartearen jarri zituzten kartelak. Eta are okerrago dena, Antoniano eta Lizardi institutuen aurrean, doktrinamendu ariketa bat egin nahian.

Gauerdi horretan harrera egin zitzaion etakideari Zarauzko kaleetan, Gaztetxean eta Arranon, suziri eta guzti; harrera horretan bere hurbileko talde bat izan zuen.

Joan den abenduaren 2an bere hurbilekoek bigarren omenaldi bat egin zioten, berriz ere, eguerdiko 12:00etan Musika Plazan. Ekitaldi horietan Sirvent etakidea – oraindik kartzelan dago – eta ETako preso guztiak ekarri zituzten gogora, bertan parte hartu zutenek esan zuten bezala.

Gogorarazi nahi dugu Ekhine Eizagirre Frantziar atxilotu zutela 2013an ETako kide zen akusaziopean eta, beste hainbeste armaren artean, 40 kilo lehergailu zituen komando bateko partaide zela leporatuta. Horregatik 6 urteko kartzela-zigorra ezarri zioten, eta 4 urteko zigorra bete ondoren, baldintzapeko askatasunean atera da.

Printzipio etiko eta politikoak kontuan izanda, onartezina iruditzen zaigu terrorismoa goraipatu edo legitimatu dezakeen edozein ekitaldi publiko, eta horregatik, onartezina iruditzen zaigu terroristei harrera publikoa egitea heroiak bailiran. Baina, gainera, badakigulako horrelako ekintzak biktimen zauriak berriro irekitzen dituzten kolpeak direla.

Ez gure herriak, ezta udalbatzar honek ere, ezin ditugu onartu biktimen sentsibilitatea zauritzen dituzten ekintzak, eta ezin dugu onartu biktima horiek berriz ere biktimizatzea.

Ezinbestekoa da talde politiko guztiek bizikidetzaren berreskuratzeko lan egitea, eta horrelako ekitaldiek ez dute batere laguntzen.

Horrelako gertaeren aurrean erakundeen erantzun garbia eta irmoa eskatzen du biktimen erreparazioak, eta kasu honetan bereziki, horrelako gertaerak oso iraingarriak dira ETako biktimentzat. Horrelako ekitaldiek oso mezu okerra bidaltzen diote gizarteari, bereziki gazteei, eta bizikidetzari kalte egiten diote.

Horregatik guztiagatik, Zarauzko PSE-EE udal taldeak honako MOZIOA aurkezten du Udalbatzarrak onar dezan:

1. Zarauzko Udalbatzarrak erabat gaitzesten ditu, Zarautzen, azaroaren 14an eta abenduaren 2an, ETako kidea den Ekhine Eizagirri harrera egiteko egin ziren ekitaldi guztiak.
2. Zarauzko Udalbatzarrak bere elkartasuna eta ezinegona adierazi nahi die ETaren biktima guztiei, gertakari horiek gure udalerrian gertatu zirelako.
3. Zarauzko Udalbatzarrak erabateko errekonozimendua eta elkartasuna adierazi nahi die terrorismoaren biktima guztiei, eta batez ere, Zarautzen gertatutakoen biktima izan zirenei. Errekonozimendu horren ondorioz, biktima horien sentsibilitatea zauritu edo berriz ere biktima bilakatzea eragin dezaketean jarrera publiko guztiak errotik kentzeko eskatzen du.
4. Zarauzko Udalbatzarrak berretsi egiten du beharrezkoa dela bizikidetzaren eta Giza Eskubideen defentsan eta terrorismoari legitimitatea kentzeko lanean jarraitzea, gertatu zena ez zelako gertatu behar, eta aurrerantzean horrelakorik berriro ere gertatu ez dadin.

Eztabaidaren bukaeran, batzarburuak horrela aginduta, proposamena bozkatzeari ekin diote. Hona hemen emaitza:

Aldeko botoak:	11	(9 EAJ-PNV, 2 PSE-EE)
Kontrako botoak:	9	(7 EH Bildu, 2 Irabazi Zarautz)
Abstentzioak:	—	

Beraz, Udalbatzarrak ERABAKI DU, botoen gehiengoarekin, transkribatutako mozioa onartzea.

<http://bideoakta.zarautz.local/?pleno=20171228&punto=10>

10.- ESKARI-GALDERAK

Ez du inork hitz egin.

Eta aztertzeko besterik ezean, batzarburu jaunak 2018 Urte Berri zoriontsua opa izan die bertaratu guztiei, eta osoko bilkurari amaiera eman dio, gaueko bederatziak laurden gutxitan; eta nik, idazkariak, horren guztiaren fede ematen dut.